

# FILIAZIO INSTITUZIONALAREN GIDA

Ekoizpen zientifikorako izendapen bibliografiko bakarra

The logo consists of the lowercase letters 'bto' in a bold, blue, sans-serif font. The 'b' and 't' are connected at the top, and the 'o' is a solid circle.

**BIOGIPUZKOA**

**EUSKAL  
OSASUN  
IKERKUNTZA**

**INVESTIGACIÓN  
VASCA  
EN SALUD**

**BASQUE  
HEALTH  
RESEARCH**



**Osakidetza**



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

OSASUN SAILA  
DEPARTAMENTO DE SALUD

1. Sarrera
2. Nabarmendu beharreko puntuak
3. Egileen filiazio-aipameneren adibideak
  - Filiazio BAKARRA: Biogipuzkoa
  - Filiazio BIKOITZA: Biogipuzkoa + beste erakunde bat
  - Filiazio ANIZKOITZA: Biogipuzkoa + beste erakunde batzuk
4. Egiletza-sinaduren normalizazioa



A white arrow pointing to the left, centered on a light blue background. The arrow has a rectangular tail and a triangular head.

Sarrera

# 1 Sarrera

Argitalpen zientifiko baten egile orok beti izan behar du bere filiazio instituzionala. Filiazio egokiak zentroak komunitate zientifikoan (definizioz nazioartekoa) ikusarazten laguntzen du, bai eta ekoizpenari, inpaktuari, rankingari eta abarri buruzko adierazle bibliometrikoak fidagarriak izaten ere.

Euskal Sistema Sanitarioak I+G+b erakundeen mapa bat du, ezagutu eta aitortu egin behar dena. Horregatik, egiletza-aipamena eta filiazio instituzionala bateratu beharrari heldu zaio jarraibide batzuen bidez, [Osasuneko sailburuordearen 2019ko martxoaren 5eko Ebazpenaren bidez onartu zirenak](#) (apirilaren 16ko EHAA). 2019ko abenduaren 24an, [huts-zuzenketa](#) argitaratu zen.

Osasun Sailaren webgunean kontsulta dezakezu [bertsio kontsolidatua](#).

## Jarraibideen xedea:

Jarraibideak nahitaez bete behar dira, eta horiek gidalerro batzuk eskaintzen dituzte irizpide berdinak aplikatzeko; irizpide horiek Euskal Sistema Sanitarioko edozein erakundetan lan egiten duten egileen izenak eta filiazioak bateratzea ahalbidetuko dute.

## Gida honen xedea:

Lehen aipatutako jarraibideak aplikatuz, gida honetan aurkezten dira Biogipuzkoa Osasun Ikerketa Institutuari atxikitako egileen filiazio-aipamenaren adibide zehatzak.



# 1 Sarrera

Zalantzarik izanez gero, jarri harremanetan zure erakundeko erreferentziazko pertsonarekin:

**Olatz Arrizabalaga Garde**

[olatz.arrizabalagagarde@biodonostia.org](mailto:olatz.arrizabalagagarde@biodonostia.org)





Nabarmendu beharreko puntuak

## Nabarmendu 2 beharreko puntuak

Ebazpenean ez dago lekuak aipatzeko gomendiorik.  
[EAEko Izendegi Geografiko Ofiziala](#) kontsulta daiteke.

### egiletza-aipamena

Argitalpen batean egiletza aipatzen denean, beti adierazi behar da egilea atxikita dagoen erakundearen/erakundeen filiazioa, azterlana egin den unean duena.

### lehentasun-ordena

Aipamenean, oro har, lehentasun-ordena bat ezartzen da erakundearen entitate edo zati guztien artean, orokorretik zehatzera.

Gure kasuan, Biogipuzkoa Osasun Ikerketa Instituturako onartutako izendapena izango da beti aipagai.

### filiazio motak

Filiazio bakarra (Biogipuzkoa Osasun Ikerketa Institutua) eta filiazio bikoitza edo filiazio anizkoitza (Biogipuzkoa Osasun Ikerketa Institutua + beste erakunde bat/zuk) bereizten dira.

Filiazio anizkoitzaren kasuan, egileek erakunde bakoitzaren jarraibideak bete beharko dituzte, baldin eta erakunde horiek Euskal Sistema Sanitariokoak ez badira (adibidez: UPV/EHU, Ikerbasque, CIBER ISCIII...).

Erakundeetako filiazioak puntu eta koma (;) bidez edo lerro independenteetan bereiziko dira. Gomendatzen da ahal den guztietan Osasun Ikerketa Institutuaren izena aipamenaren buruan adieraztea.

### egilearen sinadura

Egilearen sinadura normalizatzeko, Ebazpenaren I. eranskinaren hirugarren ataleko argibideak jarraitzea gomendatzen da.



A large, white, stylized number '3' is centered on the page. It has a thick, rounded font style with a slight shadow effect.

Egileen filiazio-aipamenen adibideak



Filiazio BAKARRA: Biogipuzkoa (adibidea)

Gaixotasun Neurodegeneratibo Taldearen argitalpena	
Euskara	Biogipuzkoa [aipamen laburtua] edo Biogipuzkoa Osasun Ikerketa Institutua [aipamen hedatua], Neurozientziak Ikerketa Arloa [aukerakoa], Gaixotasun Neuroendekapenezkoen Taldea, 20014 Donostia, Espainia.
Gaztelania	Biogipuzkoa [aipamen laburtua] edo Instituto de Investigación Sanitaria Biogipuzkoa [aipamen hedatua], Área de Neurociencias [aukerakoa], Grupo de Enfermedades Neurodegenerativas, 20014 San Sebastián, España.
Ingelesa	Biogipuzkoa [aipamen laburtua] edo Biogipuzkoa Health Research Institute [aipamen hedatua], Neurosciences Area [aukerakoa], Group of Neurodegenerative Diseases, 20014 San Sebastián, Spain.

Filiazio BIKOITZA: Biogipuzkoa + beste erakunde bat (adibidea)

Gaixotasun Neurodegeneratibo Taldea + Neurologia Zerbitzua	
Euskara	Biogipuzkoa [aipamen laburtua] edo Biogipuzkoa Osasun Ikerketa Institutua [aipamen hedatua], Neurozientziak Ikerketa Arloa [aukerakoa], Gaixotasun Neuroendekapenezkoen Taldea; Osakidetza, Donostialdea ESI [aukerakoa], Donostia Unibertsitate Ospitala, Neurologia Zerbitzua, 20014 Donostia, Espainia.
Gaztelania	Biogipuzkoa [aipamen laburtua] edo Instituto de Investigación Sanitaria Biogipuzkoa [aipamen hedatua], Área de Neurociencias [aukerakoa], Grupo de Enfermedades Neurodegenerativas; Osakidetza, OSI Donostialdea [aukerakoa], Hospital Universitario Donostia, Servicio de Neurología, 20014 San Sebastián, España.
Ingelesa	Biogipuzkoa [aipamen laburtua] edo Biogipuzkoa Health Research Institute [aipamen hedatua], Neurosciences Area [aukerakoa], Group of Neurodegenerative Diseases; Osakidetza Basque Health Service, Donostialdea Integrated Health Organisation [aukerakoa], Donostia University Hospital, Neurology Department, 20014 San Sebastián, Spain.

Filiazio BIKOITZA: Biogipuzkoa + beste erakunde bat (adibidea)

Gaixotasun Neurodegeneratibo Taldea + Amara Berriko Anbulatorioa	
Euskara	Biogipuzkoa [aipamen laburtua] edo Biogipuzkoa Osasun Ikerketa Institutua [aipamen hedatua], Neurozientziak Ikerketa Arloa [aukerakoa], Gaixotasun Neuroendekapenezkoen Taldea, 20014 Donostia, Espainia; Osakidetza, Donostialdea ESI [aukerakoa], Amara Berriko Anbulatorioa, 20010 Donostia, Espainia.
Gaztelania	Biogipuzkoa [aipamen laburtua] edo Instituto de Investigación Sanitaria Biogipuzkoa [aipamen hedatua], Área de Neurociencias [aukerakoa], Grupo de Enfermedades Neurodegenerativas, 20014 San Sebastián, España; Osakidetza, OSI Donostialdea [aukerakoa], Ambulatorio Amara Berri, 20010 San Sebastián, España.
Ingelesa	Biogipuzkoa [aipamen laburtua] edo Biogipuzkoa Health Research Institute [aipamen hedatua], Neurosciences Area [aukerakoa], Group of Neurodegenerative Diseases, 20014 San Sebastián, Spain; Osakidetza Basque Health Service, Donostialdea Integrated Health Organisation [aukerakoa], Amara Berri Ambulatory, 20010 San Sebastián, Spain.

Filiazio BIKOITZA: Biogipuzkoa + beste erakunde bat (adibidea)

Gaixotasun Neurodegeneratibo Taldea + Gipuzkoako Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendariorde	
Euskara	Biogipuzkoa [aipamen laburtua] edo Biogipuzkoa Osasun Ikerketa Institutua [aipamen hedatua], Neurozientziak Ikerketa Arloa [aukerakoa], Gaixotasun Neuroendekapenezkoen Taldea, 2014 Donostia, Espainia; Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila, Gipuzkoako Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendariorde, 2013 Donostia, Espainia.
Gaztelania	Biogipuzkoa [aipamen laburtua] edo Instituto de Investigación Sanitaria Biogipuzkoa [aipamen hedatua], Área de Neurociencias [aukerakoa], Grupo de Enfermedades Neurodegenerativas, 2014 San Sebastián, España; Departamento de Salud del Gobierno Vasco, Subdirección de Salud Pública y Adicciones de Gipuzkoa, 2013 San Sebastián, España.
Ingelesa	Biogipuzkoa [aipamen laburtua] edo Biogipuzkoa Health Research Institute [aipamen hedatua], Neurosciences Area [aukerakoa], Group of Neurodegenerative Diseases, 2014 San Sebastián, Spain; Ministry of Health of the Basque Government, Sub-Directorate for Public Health and Addictions of Gipuzkoa, 2013 San Sebastián, Spain.

Filiazio ANIZKOITZA: Biogipuzkoa + beste erakunde batzuk (adibidea)

<b>Gaixotasun Neurodegeneratibo Taldea + Neurologia Zerbitzua + Nortasuna, Balioespena eta Psikologia Tratamendu Saila, UPV/EHU</b>	
Euskara	Biogipuzkoa [aipamen laburtua] edo Biogipuzkoa Osasun Ikerketa Institutua [aipamen hedatua], Neurozientziak Ikerketa Arloa [aukerakoa], Gaixotasun Neuroendekapenezkoen Taldea; Osakidetza, Donostialdea ESI [aukerakoa], Donostia Unibertsitate Ospitala, Neurologia Zerbitzua, 20014 Donostia, Espainia; Nortasuna, Balioespena eta Psikologia Tratamendu Saila, Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU, 20018 Donostia, Espainia.
Gaztelania	Biogipuzkoa [aipamen laburtua] edo Instituto de Investigación Sanitaria Biogipuzkoa [aipamen hedatua], Área de Neurociencias [aukerakoa], Grupo de Enfermedades Neurodegenerativas; Osakidetza, OSI Donostialdea [aukerakoa], Hospital Universitario Donostia, Servicio de Neurología, 20014 San Sebastián, España; Departamento de Personalidad, Evaluación y Tratamiento Psicológico, Universidad del País Vasco UPV/EHU, 20018 San Sebastián, España.
Ingelesa	Biogipuzkoa [aipamen laburtua] edo Biogipuzkoa Health Research Institute [aipamen hedatua], Neurosciences Area [aukerakoa], Group of Neurodegenerative Diseases; Osakidetza Basque Health Service, Donostialdea Integrated Health Organisation [aukerakoa], Donostia University Hospital, Neurology Department, 20014 San Sebastián, Spain; Department of Personality, Evaluation and Psychological Treatment, University of the Basque Country UPV/EHU, 20018 San Sebastián, Spain.

A large, bold, white number '4' is centered on the page. It has a thick, blocky font style. The number is positioned behind the text.

Egiletza-sinaduren normalizazioa

## Gomendio orokorrak

1. Erabili beti sinadura bera.
2. Kasuan kasuko aldizkariaren argitalpen-arauek aukera ematen badute, adierazi ponte-izen osoa, egilea izen-abizen berdinak izan ditzaketen pertsonen bereizteko, eta sexuaren aldagaia sartu ahal izateko Euskadiko ekoizpen zientifikoari buruzko inkestetan.
3. Ponte-izena konposatua bada, erabili gidoiak izenak lotu eta behar bezala indexatzeko.
4. Adierazi bi abizenak gidoi batez bereizita. Abizenetako bat edo biak konposatuak balira, batu multzoko elementuak gidoi bidez. Salbuespen gisa, bi abizenak konposatuak eta ezohikoak badira, izena eta lehen abizena bakarrik erabil daitezke, gidoi bidez elkartuta.

# 4

Egiletza-sinaduren  
normalizazioa

## Adibide zehatzak

1. adibidea | Maseras-Ribera María-Elena

2. adibidea | Ibáñez-de-Novia-Fernández Lucía

3. adibidea | de-Llona-Agirre Pedro-Domingo

4. adibidea |  
Salbuespena: bi abizen konposatu eta ez oso arruntak.  
Lehen abizena bakarrik aipatu ahal izango da.  
Adib.: Luis Javier Fernández de Larrinoa Sáez de Argandoña  
Fernández-de-Larrinoa Luis-Javier





Nola aipatu dokumentu hau:

**Biogipuzkoa.** Filiazio Instituzionalaren Gida: ekoizpen zientifikorako izendapen bibliografiko bakarra. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza, Osasun Saila; 2023.



Osakidetza



OSASUN SAILA  
DEPARTAMENTO DE SALUD